



Beasaingo Udala

Beasainen, bi mila eta hemezortziko abenduaren hogeita zortzian

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA, Aitor Aldasoro Iturbe, Alkate-lehendakari jaunak ordezkatura, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, Miren Arrizabalaga and., 72500324-T NA zenbakia duena, BATZOKIA KULTUR ELKARTEA ordezkatzuz.

AURREKINAK

I. Batzokia kultur elkarteak interesgarriak diren kultur jarduerak egiten ditu.

II. Batzokia kultur elkarteak kultur sustapenean biziki laguntzen du, urtean zehar hainbat jarduera programatuz.

III. Hitzarmen honen helburua eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2018. urtean zehar hainbat jarduera desberdin egiteko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Batzokia kultur elkarteak urtean zehar herritarren intereseko hitzaldiak antolatu eta finantzateko konpromisoa hartzen du, ondoren 2018an egingo dituzten ekitaldiak:

- Otsailaren 5ean: Odolki banaketa Institutuko ikasleekin elkarlanean.
- Otsailaren 16an: Hitzaldia, Igartzatik Ternuara XVI. mendea Euskal Herrian Igartzako jauregia.
- Martxoaren 10ean: Emakumeen eguna: Emakumeen bazkaria.
- Martxoaren 16an: Bertso afaria Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina.
- Hitzaldia: Kirola, elikadura eta osasuna.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak jarduera horien antolaketarako **1.360 €** emanaz lagunduko dio eta Usurbe Antzokia edo Igartzako jauregia erabiltzen utziko dio.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Batzokia kultur elkarteak bere erantzukizunpean adierazten du, betebeharrak fiskaletan eta gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.



HIRUGARRENA.- Batzokia kultur Elkartek bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein ekitalditan lagunduko du eta kultur mahaian parte hartuko du.

LAUGARRENA.- Batzokia kultur elkarteari dagokio hitzarmendutako jardueri beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jardueri buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

BOSGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

SEIGARRENA.- Batzokia kultur elkartea, publizitate bidez finantzatuko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko, eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Batzokia kultur elkartek aurkeztutako kontuan hitzarmendutako zenbatekoa sartuko du, eta Batzokia kultur elkartek urtea amaitu baino lehen udalaren esku utzi beharko du ondorengo dokumentazioa:

- a) Jardueren azalpen memoria, bertan ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua eman.
- b) Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztagarri.
- c) Idatziz sortutako materialaren ale bana aurkeztu beharko ditu.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Batzokia kultur elkartek Alkatetzak horretarako izendatzen duen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula.



Beasaingo Udala

Elkarteek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarateak Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bilduek dokumentu hau urte beterako sinatu dute bikoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

